

## BESTELAKO XEDAPENAK

UNIBASQ-EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATEA EBALUATU ETA EGIAZTATZEKO AGENTZIA

### 11

*ERABAKIA, 2023ko abenduaren 11koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Gobernu Kontseiluarena, zeinaren bidez onartu eta argitara ematen baita honako figura hauetarako egiaztapena lortu nahi duten irakasle eta ikertzaileak ebaluatzeko ohiko deialdia: doktore-tituludun ikertzailea, irakasle agregatua, irakasle osoa, ikerketa irakaslea eta unibertsitate pribatuko irakasle doktorea.*

Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoaren 85. artikuluan eta hirugarren, laugarren eta bosgarren xedapen iragankorretan ezarritakoaren babesean, Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legean, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legean, eta azaroaren 13ko 192/2007 Dekretuaren 2. artikuluan (dekretu horren bidez, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaile kontratatuek eta unibertsitate pribatuetako irakasle doktoreek Unibasq-en ebaluazioa eta egiaztapena lortzeko prozedura arautzen da; dekretu hori aldatu da, abenduaren 28ko 350/2010 Dekretuaren bidez) xedatutakoa kontuan izanik, eta deialdia irekitzean indarrean dagoen protokoloan ezarritakoari jarraikiz, Agentziaren Gobernu Kontseiluak hau

#### ERABAKITZEN DU:

Onartzea eta argitara ematea honako figura hauetakoren bat egiaztatu nahi duten irakasleen irakaskuntza-jarduera eta/edo ikerketa-jarduera ebaluatzeko deialdia: doktore-tituludun ikertzailea, irakasle agregatua, irakasle osoa, ikerketa irakaslea eta unibertsitate pribatuko irakasle doktorea. Horretarako, aintzat hartuko dira honako oinarri hauek:

#### OINARRIAK

Lehenengoa.– Xedea.

1.– Deialdi honen xedea da irakasleen irakaskuntza-jarduera eta/edo ikerketa-jarduera ebaluatzea, zehazki figura hauetakoren baten araberrako kontratua lortu nahi duten irakasleena: Euskal Herriko Unibertsitateko doktore-tituludun ikertzailea, irakasle agregatua, irakasle osoa, ikerketa irakaslea eta unibertsitate pribatuko irakasle doktorea.

Bigarrena.– Figura bakoitzerako eskabidea aurkezteko baldintzak.

- Irakasle osoaren modalitatean: agregatu figuraren egiaztapena edo parekoa edukitzea.
- Irakasle agregatuaren modalitatean: doktore-titulua edukitzea eta, gutxienez, irakasle eta ikerlari gisa hiru urtez jardun izana, doktore egin eta gero, ahal dela.
- Unibertsitate pribatuko irakasle doktorearen modalitatean: doktore-titulua izatea.
- Doktore-tituludun ikertzailearen modalitatean: doktore-titulua edukitzea eta irakasle edota ikertzaile gisa hiru urteko jarduna egiaztatzea.
- Ikerketa-irakasleen modalitatean: aurretik doktore tituludun ikertzaile edo irakasle agregatu figuraren egiaztapena edo parekoa edukitzea.

Deialdian parte hartzeko epea amaitu baino lehen bete behar dira baldintza horiek eta hori egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

Hirugarrena.– Ebaluaziorako eskabidea aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea 2024ko otsailaren 1etik 2024ko martxoaren 1era artekoa izango da honako figura hauetarako: doktore-tituludun ikertzailea, agregatua, osoa, ikerketa irakaslea eta unibertsitate pribatuko irakasle doktorea.

Laugarrena.– Ebaluazioaren eskabidea betetzea.

1.– Interesdunak telematikoki egin behar du eskaera, Agentziaren webgunean ([www.unibasq.eus](http://www.unibasq.eus)) horretarako argitaratutako aplikazio informatikoa erabilita, betiere ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 27.6 artikularekin bat etorriz (ekainaren 23ko BOE), eta azaroaren 13ko 192/2007 Dekretuaren 3.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz (dekretu hori abenduaren 28ko 350/2010 Dekretuaren bidez aldatu da).

2.– Eskabidean merezimendu guztiak aipatu behar dira, banan-banan, ez baitira kontuan hartuko deialdi honetako eskabidean aipatzen ez diren merezimenduak; gainera, eskatzailearen curriculum vitae osoa ere aurkeztu beharko da. Halaber, legez eskatutako baldintzak eta interesdunaren historia akademikoa osatzen duten merezimendu guztiak egiaztatzen dituen dokumentazioaren kopia eskaneatua aurkeztu beharko da. Merezimendu horiek deialdian parte hartzeko epea amaitu baino lehen egiaztatu behar dira. Zuzen egiaztatzen ez diren merezimenduak ez dira kontuan hartuko ebaluazioan.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen, 95. bis eta 95 quinquies artikuluei jarraiki, tasa bat ezarriko da, Agentziaren web orrialdean argitaratutako prozedurari jarraituz ([www.unibasq.eus](http://www.unibasq.eus)).

4.– Ez da beharrezkoa izango merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea, baldin eta lehendik Unibasq Agentziaren esku badago dokumentu horien kopia, irakasle eta ikertzaileak ebaluatzeko aurreko deialdietan aurkeztu direlako. Horrelakoetan, nahikoa izango da dagokion espedientearen erreferentzia egitea eskabidean.

5.– Unibasqek une oro eskubidea izango du eskatzaileei dokumentazioa aurkeztea eskatzeko, baldin eta legez eskatutako baldintzak edo alegatutako merezimenduak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkoa bada. Unibasqeko ebaluazio prozesuetan gardentasuna eta sinesgarritasuna sustatzeko, eskatzaileek informazio egiazkoa eta zehatza emateko konpromisoa hartzen dute. Horrela ez bada, erantzukizun administratibo edo penalez gain, Unibasqeko ebaluazio-prozesuetan pertsonak edo erakundeak emandako informazioetan irregulartasunen aurrean prozedura onartzen duen 2019ko ekainaren 24ko Unibasqeko Etika eta Eskubideen Batzordearen Akordioan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Bosgarrena.– Eskaera formalizatzea.

1.– Eskabidea behar bezala beteta aurkezteaz gain, interesdunek eskabidea formalizatu beharko dute, Unibasqi honako agiri hauek bidalita, deialdian ezarritako epearen barruan:

a) Egoitza elektronikoan behin prozesua bete eta gero sortzen den laburpen dokumentua.

2.– Aurreko puntuan aipatutako dokumentuak ondorengo bidea soilik erabiliz bidaliko dira Unibasq-en:

Baliabide elektroniko bidez: Erregistro telematikoa [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) helbide elektronikoan egingo da, bide elektronikoz, honako xedapen hauetan ezarritakoarekin bat etorriz: Administrazio Elektronikoari buruzko 21/2012 Dekretua bigarrenenez aldatzen duen 55/2020 Dekretua, apirilaren

21ekoa (2020ko apirilaren 30eko EHAA). Izapidetzeko argibideak eskuragarri daude, aplikazio informatikoan (<https://app.unibasq.eus>).

Eskaeraren osteko izapideak helbide honetan egingo dira, bide elektronikoz: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/y22-izapide2/eu/>

Eskatzaileek, bide hau erabil ahal izateko, sinadura elektronikoko ziurtagiri aitortu bat eduki beharko dute.

Seigarrena.– Eskabidearen edukia.

Eskabidean, datu-pertsonalez gain, ebaluazioa edo txostena egiteko eskaera zer kontratu motari dagokion eta zer arlo ezagutzari dagokion adierazi beharko da. Deialdi berean, kontratazio mota berdinean, gehienez, bi ezagutza arloan eskatu ahal izango da.

Zazpigarrena.– Ebaluazio-irizpideak.

Unibasqen Ebaluazio-batzordeek Agentziak duen irakasleak eta ikertzaileak ebaluatzen eta akreditatzeko protokoloan ezarritako ebaluazio-irizpideak aplikatuko dituzte. Protokolo hori Agentziaren Aholku Batzordeak onartu zuen 2023ko azaroaren 24an, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legearen 9.2b artikuluan arabera. Protokolo hori Agentziaren webguneko irakasleak eta ikertzaileak egiaztatzen zerbitzuari dagokion atalean argitaratuta dago ([www.unibasq.eus](http://www.unibasq.eus)).

Zortzigarrena.– Ebazpena.

1.– Unibasqeko zuzendariak baterako ebazpen bat jarriko du <https://www.euskadi.eus> iragarki-taula elektronikoa, emaitzak jakinarazteko. Ebazpen hori iragarki-taula elektronikoa argitaratzen den data ebazpenaren jakinarazpena komunikatzeko data formala da, xede guztietarako. Nolanahi ere, ondorengo egunetan ebazpen indibidualizatua bidaliko zaie eskatzaileei Administrazio Elektronikoa bidez.

Ebazpen horren aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, nahi izanez gero, Unibasqen aurrean, hilabeteko epean, edota, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietako Epaitegi eskudunetan, bi hilabeteko epean (bi kasuetan, ebazpen kolektiboa iragarki-taula elektronikoa jakinarazten denetik aurrera kontatzen hasita).

2.– Ebazpenetan, adierazi beharko da ebaluazioa zer kontratu-irudirako egin den, ebaluazioa positiboa edo negatiboa izan den eta txostena aldekoa edo kontrakoa izan den. Halaber, ebazpena kontrakoa izan bada, dagokion batzordeak egindako ebaluazioaren edo txostenaren laburpena eskaera bete den aplikazio informatikoan egongo da eskuragarri (<https://app.unibasq.eus>).

3.– Ebaluazioaren ebazpenak deialdi honetan eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitu eta hurrengo sei hilabeteen barruan jakinarazi beharko zaizkie interesdunei, alde batera utzi gabe Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. eta 23. artikuluetan xedatutakoa.

4.– Administrazio-isiltasunaren zentzua ez eslesia izango da, LOSUren 85.3 artikulua egiaztatzen-prozedura horietarako ezartzen duen bezala.

5.– Ebaluazio negatiboa jaso duen interesdunak ezin izango du beste ebaluazio-eskaera bat aurkeztu dagokion ebazpena jakinarazi eta sei hilabete igaro arte, abenduaren 28ko 350/2010 Dekretuaren bidez aldatutako azaroaren 13ko 192/2007 Dekretuaren 8.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Dekretu horren bidez, Unibasqen ebaluazioa eta egiaztatzen lortzeko prozedura arautzen da.

Bederatzigarrena.– Dokumentu-erregimena eta datu pertsonalen inguruko eskubideak.

1.– Datuak babesteko dagoen araudiaren arabera, (kontuan hartuko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa (RGPD), eta baita 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa ere), interesdunek emandako datuak fitxategi pertsonal automatizatu batean sartuta gera daitezke. Datu horien titularra Unibasq izango da eta Agentziak egindako deialdi prozesuak garatzeko erabiliko ditu; betiere interesdun pertsonak bertan parte hartzen badute.

2.– Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Irakasleriaren ebaluazio programak.

– Arduraduna: Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia.

– Helburua: Irakasleriaren irakaskuntza, ikerkuntza, ezagutza zabaltzearen eta kudeaketa merituak ebaluatzeko, programa desberdinen arabera.

– Legitimazioa:

Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

– Hartzaileak:

Dagokionean UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, EUNEIZ eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

– Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

– Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: [www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/034900-capa2-eu.shtml](http://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/034900-capa2-eu.shtml)

– Araudia:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra ([www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa\\_dpd/eu\\_def/adjuntos/RGPD-2016\\_0679\\_eu.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. ([www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf](http://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)).

Hamargarrena.– Errekurtsoak.

Deialdi hau eta haren oinarriak behin betikoak dira administrazio-bidean, eta, haien aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diete Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarekiko auzien jurisdikzio-organoei, bi hilabeteko epean, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. eta 46. artikuluetan. Halaber, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango diote Agentziari, hilabeteko epean, adierazitako 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluei jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 11.

Unibasq-eko Gobernu Kontseiluko burua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.